



Mehatxu faxisten aurkako elkarretaratzea egingo dute bihar Erandion

HIRUKA :: 11/01/2024

Azkenaldian, Erandioko kaleetan hainbat pintada faxista egiteaz gain, sare sozialen bitartez faxista batek irain eta mehatxu larriak egin ditu hainbat erandioztarren aurka.

Azkenaldian, Erandioko kaleetan hainbat pintada faxista egiteaz gain, sare sozialen bitartez faxista batek irain eta mehatxu larriak egin ditu hainbat erandioztarren aurka, besteak beste, EH Bilduko kideen aurka. Gertakari horiek salatzeke eta mezu eta ideia horiek lekurik ez dutela aldarrikatzeko, barikuan, 20:00etan, elkarretaratzea egingo dute Alzagako metro-geltokian.

Sare sozialen bitartez egindako deialdian zera aldarrikatu dute: "Azken asteotan Erandion hainbat pintada faxista agertu dira. Honi, orain gehitu behar diogu azken egunetan sareetan zabaldutako bideo bat. Bertan faxista batek irain eta mehatxu oso larriak bota zituen". Gertakizun horiek gaitzesteko deialdia egiteagaz batera, zera azpimarratu dute: "Honen aurrean erantzuteko ordua heldu dela uste dugu. Horrelako mezu eta ideiek ez dutelako lekurik ez Erandion ez inon".

<https://eh.lahaine.org/mehatxu-faxisten-aurkako-elkarretaratzea-egingo>